

BERTSOLAMINTZA

Bertsolaritza, berta-bertatik begiratzuz, indartsu bidea ebakiz aurrera doan kultur arlo garrantzitsutzat agertzen zaigu. Urrunetik ere haren burrundada, haren ibileraren oin-hotsa argi eta garbi somatzen da.

Horrelako kultur agerpen esanguratsua izanik, ezinbestekoa zen hari buruzko barne-gogoeta egitea.

Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak heldu zion gaiari. Hasieran, 1992. urtean, hainbat gai atera ziren gogoetarako. Bertsolaritzaz gaur egun interesgarri eta eztabaidagai izan daitezkeenak. Hasierako gai guztietatik, sei azterlan burutzea, argitaratzea eta jardunaldi gisa jendaurrera agertzea lortu du Bertsolari Elkarteak. Guzti hau elkartearen ekimenez sortutako **«Forum Taldea»**ren emaitza izan da.

Honela dio hitzez hitz elkartearen boletinak:

«Bertsolaritza inoiz baino ospe eta eragin handiagoa izaten ari bada, derrigorra da mugimendu horren nondik norakoak eta bere erraiak aztertzen ahalegin bat egitea. Bada lan hori guri ez dagokigula uste duenik. Unibertsitatea, Euskaltzaindia edo eta Eusko Ikaskuntza bera eremu naturalagotzat jotzen dituzte guk burutu edo burutzen ari garen azterketa eta ikerketak burutzeko.

Guk ez diogu inori ez egitekorik esan, ez eta esango, ez inolako zangotrabarik egingo. Guk, egin behar dela esaten dugu. Bertsolaritzak behar duela».

Orain arte ere noizbait antzekorik egin izango zen, agian, baina jardunaldiak itxura berri-berriaz jaio dira. Izena ere halakoxea: **«Bertsolamintza»**.

Burutu diren sei azterlanak JAKIN aldizkariak argitaratu ditu eta egileek hiru egunez hitzaldi gisa aurkeztu dituzte Donostiako «Nazaret» zentroan, Zestoako Bainuetxean egindako egun osoko jardunaldiaz amaiera emanik.

KARMEL aldizkariraino ere haren oihartzuna heltzea nahi nuen eta hona sei hitzaldion laburpen edo haietaz neuk jaso dudan ikuspegi ororra. Jakina, bakoitzak berea ezagutzen du ondoen eta nik ere neureari emango diot lekurik handiena...

Donostiako hitzaldietan, lehen egunean, Jon Sarasua eta Joserra Garzia aritu ziren; hark «Herri mailako jarduna» izan zuen aztergai eta honek «Bertsolaritza hedabideetan». Bigarren egunean, Antton Kazabon-ek «Ahozketasun eta hizkuntza» izenburu zuen gaia agertu zuen, Mikel Mendizabal eta bien artean burututakoa; Pello Esnal, berriz, «bat-bateko bertso-gintzaren didaktikaz» aritu zen. Hirugarren egunean, «Hizkera bizia eta txukuna bertsolaritzan» aztertu nuen nik eta Andoni Egañak «Egungo bertsolaritzaren ezaugarriak».

Herri-mailako jarduna

Bertsoa komunikatzeko formula dela esaten digu Jon Sarasuak. «Denboran zehar Euskal Herrian arrazoi eta kasualitateen bidez finkatu den formula sinple bat: hitzak era jakin batean neurtu eta errimatuz kantatzea». Bertsoa hitza, hitz inprobisatua eta beti berria denez gero, oso malgua da, gauza askotarako erabil daitekeena. Gaur eguneko erabilerari dagokionez, bertsoa bitarteko, osagai nahiz protagonista gertatzen den hainbat iharduera aipatzen dizkigu. Edozertara



moldatzeko duen malgutasun horregatik, bertsoa nekez agor daiteke jolasaren, kirolaren, literaturaren... eremuan. Une batean jolasa izango da batez ere, jokoa edo lehiaketa beste batean, literatura ere bai... artistak, garaian garaiko beharrak eta abaguneak zeintzuk diren, hartara edo horretara bideratuko du bere iharduna. Etorkizunean, publizitatea egiteko ere bertsoa erabiltzea ez lukeela hain gauza bitxitzat joko, adierazi zuen. Azken aldiotan ikuskizun mailan dago bertsolaritza indartsuen, hauetan ere hainbat aldagai izaten direlarik.

Bertsolaritzan goi-mailakoa izan edo batere ez izan. Erdizka ibiltzekotan ez ibilita hobe... eta antzeko iritziak zabaldu dira. Mailak, promozioa, bertsolaririk hoberenak ekartzeko antolatzaileen eskubidea, bertsolarien nahia. Gauza asko nahasten dira. Herri-mailako bertsolaritzaren garrantzia

azpimarratzen du Jon Sarasuak bere lanean. Nazio-mailako bertsolaria dago gaur egun guztia harrapatzen duela, berari dagokiona eta ez dagokiona. Herri eta eskualdeko egitekoak

herri-mailako bertsolariek bete behar lituzkete, haiek baitira ingurua ongien ezagutzen dutenak eta inguru hartako bertsoTMpremiei erantzuteko egokienak. Ez deritzo hala ere gaizki, noizbehinka, punta-puntako bertsolariekin ikuskizun apartekoak eratzeari. Bere ideia hobeki ulertua izan dadin, kirolaren adibidea dakar: «nazio-mailako futbolari izateak bere logika eta zentzua duen bezala, bere logika eta zentzua du herriko futbol-taldekoa izateak [...] Esparru bakoitzean bilatzen eta lortzen da futbolaren gozamina eta futbol-ikuskizuna, bere neurrian». Eskoletako eta herriko futbol-taldeen helburua ez da Real Sociedadarako jokalaria sortzea, futboleko jokatzea baizik. «Aldi berean, goi-mailako liga beti izango da behekoen ispilu, gozagarri eta eredu imitagarri. Baina ez beti jomuga».

Bertsolaritzan inguruari lotzeak duen garrantzia azpimarratzen du. Eta, Amurizaren hitzak aipatuz, artearen bi uneak bat egiten dutela bertsolaritzan adieraziko digu: arterik gehienetan sorkuntza eta interpretazioa ongi bereizik izaten dira. Artistak lehenengo eta behin artelana sortu egiten du eta gero, horretarako egokiera duenean, jendaurrean agertzen du bere arte-emaitza. Bertsolaritzan, ordea, biak bat-batera eta bat-batean gertatzen dira, unean unean, publikoaren eta zertzeladen arabera artistak saio-mota eta gainerako nabardurak egokitzen dituelarik.

Herri-mailako bertsolaritzan aurrera egiteko, ezinbestekotzat jotzen du taldea. Jonek idazten duena ez da teoria hutsa, bere esperientziaz egindako gogoeten emaitza baizik. Berak Leinzko eta Bilboko Santutxuko esperientziak kontatzen dizkigu, batez ere Leinzkoak eta gero herriko bertso-taldearen ahalbide ugariak aipatzen dizkigu:

- Taldeko bertsogintza bete. Entrenamendua, gozamina.
- Bertsolari eta bertsozaleentzat afariak.
- Inguruko ekintza espontaneo eta prestatuetan parte hartu. Eta auzo-jai, bazkari, omenaldi, ekitaldi publikoetan... kantatu.
- Bertso-paperekin mundu osoa jorratu, herrian eraginez.

- Gogoaren arabera, goiko adibidean aipatutako ekintzak eta beste mila montatu.

Guzti hau bertsolariei begira soilik ez, entzulei eta bertsolaritzari begira ere ona delako proposatzen duela dio. Herrietako jardunak ongi joatea, bertsolaritza osasuntsu dagoen seinalea da, herrietakoa baita oinarritzko bertsolaritza.

Bertsolaritzan, beheko mailetatik goikoetara mailaketa zurrunik ez dela ere esango digu gero, eta goi-mailako bertsolari batzuk herri-mailan eta herriko taldeetan kantatu ezinik ez dutela.

Beste hainbat xehetasun ere badakartza Jon Sarasuak *JAKIN* aldizkarian idatzitako lan interesgarri horretan, baina luze joko luke puntu guztien berri emateak. Dena dela, lan guztiz praktikoa eta talde askori bideak irekitzeko erakoa dela esango nuke.

Bertsolaritza hedabideetan

Baieztafen biribila bota du Joserra Garziak bere idazlanaren atarian: «hedabideetan agertu ezean izaterik ere ez dagoela esan liteke, gero eta gehiago». Bertsolaritza ere bidegurutze horren aurrez aurre aurkitzen dela diosku. Bada bertsolaritza bere tradizioari ongi atxikiz, kutsatu gabe eta iraganeko molde «jatorretan» ikusi nahi lukeenik. Beste asko, hala ere, bertsolaritza modernizatzearen aldeko ahaleaginean sartu dira bete-betean, honek dituen arrisku guztiekin. «Eta modernizatze hori hedabideetatik egin beharko da, inola egitekotan».

Bertsolaritza hedabideetara eramatean, haietara egokitu beharra du. Zuhur jokatu ezik, bere izaera galtzeko arriskurik ere baduela oharrarazten du.

Euskal Herriko erdal hedabideen utzikeria salatzen du bertsolaritzari begira. «Bertsolaritza kultur ondare bitxi eta bakan dugu, eta Euskal Herrian bada jende-multzo zabal bat (zabalegia aukeran) horren berri ez duena. Oraindik egiteko dago, adibidez, bertsolaritzaren nondik norakoak azalduko

dituen bideoa erdaraz, euskaraz ez dakien euskal herritarrari «horra zer galtzen duzun euskaraz ez jakitearren» edo, adieraziko liokeena. ETBren bigarren katea sortu zelarik era horretako lanen zain egon ginen koitaduok etsipena hartzen hasiak gaude, ikusirik Japoniako, Finlandiako, EEBBetako eta beste hainbat tokitako telebistek aurre hartu digutela horretan ere».

Hedabideetan egiten dena, egiten ez dena eta egin behar litzatekeena argi eta zorrozki adierazi digu, bide batez medio bakoitzaren ahalbideak eta mugak zehaztuz. Prentsa idatzia, adibidez, bertso jarrien alderdia jasotzeko da egokiena. BatTMbatekorako ez du arintasunik. Bertsopaperek behinola zuten komunikatzeko gaitasuna berreskuratzeko saiorik ere nabari da. *Euskaldunon Egunkaria*-ren bigarren orrialdean argitaratzen dena dakarkigu eredutzat. Dena dela irratia eta telebista baino egokiagoztat jotzen du prentsa bertsogintzaren teoria landu eta azaltzeko. Zer egin daitekeen adieraziz bukatzen du atal hau.

Irratia guztiz egokia da bat-batekotasuna jaso ahal izateko. Sartu ere aspaldi sartu zen bertsoa irratian. Lehen pausuak, ohizko plazetan bertsoak grabatu eta galbaheketa handirik gabe entzuleei eskainiz, eman izan ziren. Euskadi Irratiaren «Patxi Mujikaren perlak» saioaren aipamen berezia egiten du, honek duen dokumentu-baliogatik. Gainerakoan, salbuespenak salbuespen, hasierako antzera jokatzeko delako dio. Irratiak, bertsoak eskaintzeaz gainera, kritikarako, eztabaidarako... ahalmena duela eta aukera guzti horiek alferrik galtzen ote diren inpresioa du Joserra Garziak. Hala ere garbi utzi nahi du gauza bat dela irratia dituen ahalbideak eta beste bat irratietan ari direnen ahalbideak.

Irratirako zenbait proposamen eginez bukatzen du: irratiko plaza, bertso jarriak irratian musikaz lagundurik, bertsoen teoria... Azken honi dagokionez, Euskadi Irratiko «Eta hitza jolas bihurtu zen» ataltxoa dugula, dio, egin behar litzatekeen eredurik gertukoena. Bertsolaritza, ahozko literaturaren atalik indartsuena

izanik, ahozketasuna bere osotasunean ematea irratiaerentzat aproposa izan daitekeela uste du.

Telebistan egin izan diren egokitze eta berritze ahaleginak kontatzen dizkigu ondoren, medio honen denbora urria eta bertso-aukera zorrotzagoa egin beharra azpimarratuz. Azkenez, hiru medioak elkarren osagarritzat jorik, elkarlanean aritzeko ideia botatzen du.

Ahozketasuna eta hizkuntza

Antton Kazabon eta Mikel Mendizabal-ek prestatutako lanean, ahalegin berezia nabari da eskoletan, hizkuntzaren irakaskuntzan, ahozketasunari bere tokia emateko. Eskoletan guztia omen da idatzizkoa, guztia liburukoa, ahozkoaren kaltetan. Kaleko hizkerari ere hortik etorri zaio, agian, bere izaera mengela, esamolde jatorretan hain pobre izatea, freskotasun eta bizitasunik eza. Idatzizko korrekzio gramatikalak ahozkoa jateraino jo du ia-ia. «Herri eta auzoetan ere, gehienbat batua erabiltzen da hizketarako ere, zenbaitetan, idatzirako ezarritako arauak puntaraino erabiliz, bertako euskalkiak eta hizkerak baztertuz eta ahaztuz». Bertsolaritza izan daitekeela, uste dute lan honen egileek, ahozko espresio jatorraren erabilpena berreskuratzeko bideetariko bat. Bertsolaritza eta ahozko altxorra osatzen duten gainerako atalak. Benetan premiazkotzat, berandu egin orduko berreskuratu beharrekotzat jotzen dute hori: «Eta, ahozketasunaren gurdira igotzekotan, azkar egin beharko dugu gainera. Bat-bateko bertsogintzan ere nabari baita bertso idatziaren eragina eta presentzia».

«[...] gure hizkuntzari berriro ere kolorea emateko ordua iritsi da, eskoletan ahozketasuna landuz, edukia ahaztu gabe, noski, baina batez ere forma eta estetika landuz, itxura bizi eta graziduna indartuz».

Auzi honi heltzerakoan, hizkuntza eta gramatika lantzeko era formala ez dela bakarra esango digute. Honekin batera, beste baliabide batzuk ere erabil daitezkeela. Gainera,



hizkuntzaren zati bakarra ez dela gramatika ere esango digute. Hizkuntza ikasi eta landu erabilpenerako ikasi eta lantzen da. «Horretarako, zergatik ez erabili, ohizko bide formaletatik at, atso-titzak, kantuak, koplak, leiendak, ditxoak eta bertsoak hizkuntzarako baliabide edo tresna gisa, helburu gisa erabili ordez?»

Horrela, bide batez, hizkuntzaren irakasuntzan tarteko diren arlo guztiak landu daitezke: gramatika, funtzioak... Bertsolaritza

bera abiapuntu hartuz gero, berriz, funtzio komunikatiboa izan daitekeela, diote, bereziki landu beharrekoa, ahozkotasunak bere-bereak dituen ezaugarriak ahaztu gabe. Horretara bideratutako hainbat adibide jarri ondoren, laburbildurik, proposamena hauxe litzateke: «euskararen ikasketa eta lanketa ohizko metodoetatik ateratzea». Azken batez, aholku bat ematen diete irakasleei: «[...] bete ezazu zure karpeta bertso zahar eta berriz, koplak eta euskal kantuz, atso-titzak eta ditxoak, txisteak eta leiendak, aho-korapiloak eta asmakizunak... eta batez ere, irudimenez. Eta ea euskarazko klaseetan gehiago gozatzen dugun».

Bat-bateko bertsogintzaren didaktikaz

Nola irakatsi bertsotan bat-batean egiten? Galdera hau du abiapuntu Pello Esnañen lanak. Galdera horren harian beste batzuk ere berez-berez sortuko dira: bertsolaria jaio ala egin egiten da? Berezkoa ala ikasia da bertsolariaren gaitasuna? Nola sortu dira orain arteko bertsolariak?

Bertsolaria jaio ala egin egiten da? edo beste era batera esanik, berezkoa ala ikasia da bertsotarako gaitasuna? Galdera zaharra dugu hau eta orain arte erantzun bat baino gehiago jaso izan du. Pello Esnañek, Jose Agirreren erantzuna, Antton Aranburuk eta Jose Mari Iriondok batera emandakoa eta Xabier Amurizarena jartzen dizkigu bere idazlanean.

- Jose Agirre bertsolariak: «estraineko jaio behintzat».

- Antton Aranburuk eta Jose Mari Iriondok: «estraineko jaio egiten dela bistakoa bada ere, gero egin egiten da bertsolaria. Eta euskaldunon ahozko literaturaren tradizioa laguntzaile delarik, ofizioa gero ikasi egiten dela esango nuke, neurri haundi batetan behintzat [...]». Aurreraxeago giroak asko laguntzen duela esango digute hauek, bertsolari on eta ugari diren inguruneetan, giro hartan edanda edo, bertsolari ugari izan direla, «odoletik baino gehiago girotik bait dator bertsolaria».

- Xabier Amurizaren erantzuna luzeagoa da: «[...] bertsolaritzan ez ezik, beste edozein kirol, arte nahiz lanbidetan ere «berezkorik ez bada, alperrik ari zarete». Baina gakoa berezko hori non dagoen aurkitzea da, nork eta zenbat daukan jakitea. Berezkoa lehengaia bezala da: lehenbizi topatu egin behar da eta gero landu.

Horretarako modu bakarra aprobatzea da eta aprobatzeko aukera izan behar da».

Aurreraxeago, gizakiak duen berezkorik ederrena ikasmena dela diosku Xabierrek. Baina ikastea aipatzean, ikastetxeek soilik ez pentsatzeko. «Ikasmena jaiotzatik hil arte doan ahalmena da,

bai etxean, bai ikastetxean, bai kalean, bai ametsetan, bai bakarrean, bai elkarrekin, bai oharturik, bai oharkabea».

Hezkuntza informala eta hezkuntza formala aipatzen dizkigu. «Hasieran ez zen eskolarik eta dena zen eskola: eskola zen familia, eskola zen lagunartea, eskola zen ingurua, eskola zen ametsa... Hasieran ez zen eskolarik, baina haurra gizon edo emakume egiten zen, hezi egiten zen, oro eskola zen hartan». Gerora, ezarian-ezarian eskolaren gain utziz joan da gizartea bere-bereak zituen eginbeharrak ere.

Norbereganatzea eta ikastea dira bere ideiak azaltzeko Pellok agertzen dituen beste bi kontzeptu. Norbereganatzea oharkabea gertatzen da; ikastea, ordea, jakinaren gainean. Lehen hizkuntza oharkabea norbereganatzen da. Bigarren hizkuntzari dagokionez, ez dago argi. Lehenengo hizkuntzaz jabetzea bezain erraz gerta daiteke bigarren hizkuntzaz jabetzea, hartaz oharkabea jabetuko bagina. Adibide hau oinarritzat hartuz, hona bertsotarako ateratzen dituen ondorioak:

- Lehenengo hizkuntza eskuratzea bezain erraza izan daiteke bertsotan egiteko gaitasuna eskuratzea, baldin eta lehen hizkuntza bezala eskuratzen bada: oharkabea, alegia.

- Bigarren edo hirugarren hizkuntza edo hizkuntza arrotza ikastea bezain zaila izan daiteke bertsotan egiten ikastea, baldin eta jakinaren gainean ikasten saiatzen bagara.

- Beraz, kontua ez da bertsotan egiteko gaitasuna eskuratzea, baizik eta nola eskuratzen den: oharkabea ala jakinaren gainean».

Azken batez eskola formalak berezkoaren lagungarri besterik ez lukeela izan behar uste du: «Euskal gizartea izan da gaurdaino bertsolari-eskolarik onena eta ia bakarra. Lehen eskola horretan sortutako hutsunea betetzera dator gaur eskola formala». Guzti horregatik eskolan giroa sortzea ezinbestekoa da; hezkuntza informalaren nagusigoa aitortzea litzateke hori. Dena dela, iharduera formalak ere toki garrantzitsua du bertso-eskolan,

hezkuntza informalaren lehentasuna aitortzeak ez baitakar formala baztertzea.

Hizkera bizia eta txukuna bertsolaritzan

Hizkuntzak bi adierazpide nahiko desberdin ditu: ahozkoa eta idatzizkoa. Bakoitzak bere izaera eta bere ezaugarriak ditu. Gainbegirada batez eta handi-handika, ahozkoaren ezaugarriak aipatuko ditut. Baina ahozko formak ere ez dira berdinak kasu guztietan: etxean, lagunartean, kalean... era batetara mintzatzen gara eta jendaurrean, hitzaldietan, irratietan eta abar beste batetara. Azken kasu hauetako hizkera, gutxi-asko, idatzizko formetara hurbiltzen da, bi formen artean zubi antzera egiten duena izanik.

Bat-bateko bertsoketako hizkera izango dugu aztergai. Iharduera horretan, hizkerari dagokionez eta beti ere gure iritziz, zer den zilegi eta zer ez azalduko dugu.

Ahozko hizkeraren ezaugarrietariko bat arintasuna, bizitasuna da. Beharrezko ez dena isilduz, elipsiak egoki tartekatuz dihardu, esaldiak guztiz biribildu gabe. Logika--senari eta arrazoibideari ongi atxekiz, baina logikaren formak beren-beregi agertu gabe, batzutan logika barne-barnean ezkutatuz. Irudi eta ideietan mugimendu oso azkarra da; batetik bestera saltoka bezala aritzen dena.

Esaldiak, elipsiak eginik ere, harmoniatsuak, gozoak, ongi taiutuak, kadentzia betekoak izatea eskatzen da. Garai batetan, dirudienez, azken punturako gordetzen zen kadentzia harmoniatsu eta bete-beteko hori, baina gaur egunean goitik behera bertsoak ongi egituratzea, lehen puntutik azkeneraino egoki bideratzea eta jostea izaten da helburu, beti lortzen ez bada ere. Honetaz, X. Amurizak *Hitzaren Kirol Nazionala* liburuan agertzen dituen gogoetak oso egokiak direlakoan nago eta hementxe tartekatuko ditut neure erara laburturik:

«Ez dago bertsoaren puntu bakoitza arrazoi handiz edo kolpe zorrotzez kargaturik eramaterik. Orduan, progresioren bat

izatekotan, aurretik atzerantz izan behar, azkena gailurtzat harturik. Horretarako aurretik **betelana** deritzona egin behar izaten da, bertsoa azkenerantz eramanik. **Betelan** hori ez da lan hutsa. Nabarmena eta hutsa izan liteke. Baina berez, betelana bertsolariaren trebetasun handietariko bat da. Arrazoi handiegirik esan gabe, haria hartu eta dotore eta bizi eraman, errepika arruntik gabe. Hori arte bat da eta gehienetan entzulea ez da ohartzen betelana egiten ari den. Horretara ulerturik, betelana lan handia da, arte handia da. Bertsolaria azkena buruan duela kantatzen ari da.

Bertsoak horrela goranzko progresioa eraman behar du. Oro har, bi eratako bertsoak izan litezke. Batzuk indar guztia azkenean kargatzen dutenak. (...) Beste batzuk bertso guztian zehar dakarte indarra eta azken puntua ondorio edo biltzaile bezala dator. Inoiz ezin dena da azkenean jaistea, azken puntua aurrekoak baino motelagoa izatea. Orduan bertsoak asko galtzen du».

Bertsolariak bat-batean ari dela, bertsoa nola egituratzen duen adierazten digu hemen X. Amurizak, hain «aipatua den atzekoz aurrerako teknika erabiliz.

Errealitatearen ikuspegi xumeak, puskak bezala adierazten ditu bertsoak; ez bere izaera korapilatsuan, bere ataletan sistematikoki sailkatutik eta abar. Bat-bateko bertsoak erreka ur saltaria bezala izan behar du; fresko, azkar eta garbi datorrena. Ez luke pentsamentu trinko eta bihurriegirik erabili behar, ezta metafora zailegirik ere. Horrek ezinbestekoa den bertsolariaren eta entzulearen arteko harremana etengo luke; hau da, bat-bateko bertsoa bat-batean jaso behar du entzuleak, erraz eta arteak eragiten duen zentzazio gozoz, jaso ere.

Esaldi behartuak

Esaldi behartuak, puntu-amaierako hitzekin lotu beharraren lotu beharrez, harira ez datozenak, kolpeka edo mailukadaka sartuak... ez dira onartzekoak. Bertsoak, bere izaera xumean, ongi egin izan behar du; ongi esandakoaren inpresioa sortera

behar du, bete-betea horrelaxe eta ez bestetara behar lukeenaren ustea entzuleagan uzteraino. Hain zuzen ere, ikasten ari direnen eta maisu handien arteko alderik nabariena, hortxe somatzen dela esango nuke. Orain dela urte asko, Uztapide zenari egindako elkarrizketa batetan hark esandakoak datorzkit une honetan gogora: bertsolariaren etorria aipatzen da -zioen hark- baina bertsoa ez da berez sortzen, bertsoa **etorri ez, baina ekarri egin behar da**, ongi kostata eta nekez, ekarri ere... Dena dela, izatez hala bada ere, erraz-erraz eta iturritik hara sortutakoaren zirrara gozo eta atsegina utzi behar du entzuleagan. Hori maisu handiek dakite soilik egiten.

Erdarakadak

Esandakoaz gainera, baztergarririk ezer bada, esaldi traketsak eta erdarakadak dira batez ere. Lexikoan mailegua erabiltzea ez hainbeste. Hauek, harira datozenean, egoki sartuak direnean, bete-beteko eta indar handiko gerta daitezke. Baina besterik da erdal klitxeak erabiltzea. Euskaraz egunero ari denak, bere gogoa, bere pentsamentua euskaraz darabilenak, euskal adierazpen jatorrak erabiliko ditu. Bere komunikatu beharrak, bere arte-lanak eskatu ahala, euskal esamoldeak asmatuko ditu. Bertsotan erabiltzeko hizkuntzari gagozkiola, hori ezinbestekoa da. Bertsolaritzak, teoriaz, kutsatu gabeko euskararen esparru izan beharko luke. Orain arte, juzku zorrotzegirik egin gabe, gainbegiratu batez, hala dirudi. Horregatik euskaldun ez denak ez du zereginik bertso-munduan. Baina erdal eragina maltzurki barneratu ohi zaigu eta oharkabea azpizana egin. Hau da, erdal moldeak bestela baitakoan, euskal jantziz datorzkigu. Erdaraz pentsatzen duenak esamoldeak eta adierazpideak erdaraz sortzen ditu eta, euskal hitzez mozorrotu arren, haiek beti izango dira erdara. Ez da ahaztu behar, lexikoa ere beharrezko izan arren, esamoldeak, esaerak... direla hizkuntzaren arima. Bertso-laritzaren gaitzik larrienetarikoa euskal sen hori galtzea edo eta erdararen afontupean itota gelditzea litzateke. Horrek irudi narrasa emango lioke bertsolaritzari, nekez eta ongi merezita

igona den goi-mailatik gainbeheraka jarritz. Literatura idatzian eta landuan ari direnen mesprezua merezi izango luke eta hortik kultur mailatik baztertzea berez-berez letorke...

Lerro hauetan, hala ere, garbi utzi nahi nuke bertsolaritza ahozkoa dela eta ez idatzizkoa, bertso-paperak salbuespen badira ere. Ahozko hizkerak, laburdurak, tokian tokiko forma hitxiak, fonetismoak eta abar izan ohi ditu; bertsotan, berriez, lizentziak ere ugari izaten dira; hala ere guztiak ez dira onargarriak. Ahozko euskara dotore baten eredu izatea exigitu behar zaio bertsolaritzari.

Ahozko tradizio jator baten beharra

Jendaurreko euskarak badu bere tradizioa, eliz hitzaldietan landua bereziki, baina azken urteotan baita bestelako hitzaldi eta irrati-telebistan ere. Bertsolaritzak hauen artean izan dezake lekua. Dena dela, ez nago ziur hori bertsolaritzarako eredu aproposa izan daitekeenik. Izan ere, eredu horiek idatzizkotik




hurbilago daudela dirudi ahozkotik baino. Jendaurrean ahoz esateko bada ere, idatzi egiten dira lehenbizi kasurik gehienetan. Hobe litzateke bertsolaritzak bere-berea duen ahozko eredu eta tradizioa lantzea. Alabaina horretan ez gaude hutsetik hasi beharrean. Agian, ez guztion gogokoa, baina bide luze samarra egina da. Hor dago **gipuzkoar eskola** dei genezakeena. Xenpelar, Pello Mari Otaño, Bilintx, Udarregi, Pello Errota, Txirrita eta gainerako hainbat izar ez dira alferrik aritu. Apurka-apurka bertsolaritzan ildoak markatu dute, hizkuntza horretara moldatu eta trebatu dute ezarian-ezarian. Patziku Perurena goizuetarrak idatzi du berriki zerbaít honetaz. Hark giputze nagusitasuna kaltegarritzat jotzen du eta haien ildotik irten arte nafarrek ez luketela etsi behar uste du. Aholku hori ematen die nafarrei: haien mendea egotera makurtu gabe, eurek eurretara aurrera jotzeko bertsolaritzan...

Alabaina gipuzkoarren eragina ukaezina da. Beste euskalkietako bertsolariek, bizkaitarrek bereziki, bertsotan ari direla, gipuzkoarren eskolara edo batu antzeko horretara moldatzen dira ia oharkabea. Eguneroko harremanetan, lagunartean eta egiten duten euskarak eta bertsotan darabiltzenak ez dute elkarrekin zerikusirik. Horrek zerbaít esan nahi du: Gipuzkoako bertso-tradizioan hainbat molde eginak eta aski finkatuak daudela eta errazago zaiela haiei ere euren euskalki propioan erdi hutsetik abiatuz egitura berriak sortzea baino, finkatu samar dauden egitura haietan ideien edukina isurtzea.

Bada salbuespenik ere. Iparraldeko bertsolariengan hango euskararen isuria nabari da argi eta garbi. Baina han bertsogintzako tradizioa, poesia kultorantz lerratua bada ere, Hegoaldekoa baino zaharragoa da. Horregatik edo, Xalbador zena bertso jarriei esker izan zen gehienbat miretsia, bat-batean ari zenean Gipuzkoan ez bait zioten ongi ulertzen.

Kasu berezia dugu Xabier Amuriza eta Jon Lopategi bertsolariena. Egia esan, benetan eskertzekoa da hauek egiten dutena, baina bi erregistroak hain maisuki erabiltzea ez da



edonork egitekoa... Hauxe litzateke benetan desiragarri: publikoaren arabera, bertsolariak euskalkiz nahiz gipuzkeratik hurbileko euskara batuaz kantatu ahal izatea. Baina hori adieraztean, ez gara ari euskalkietako hitzak bertsotan tartekatzeaz, gutxiago oraindik euskalkiak nahasian, **nahaste-borrastean** esango genuke hobeki, erabiltzeaz. Hitzak tartekatu daitezke komentziaren arabera. Euskalkien hitz-*-altxorra* hor dago, artistak askatasun osoz erabiltzeko, baina sistemak txitean-

pitean eta bereziki bertso beraren barruan nahastatzea ez litzateke estetikaren ez euskararen onerako, Beraz, goian aipatutako bi erregistro horiek erabiltzea nahiko zaila eta gehienentzat ezina denez gero, bakoitzak bere euskalkian, baina txukun, txokokeriak baztertuz, kantatzea litzateke egokiena. Gipuzkoako eskolarantz jotzea, hala ere, ez litzateke inorentzat gaitzesgarri. Dena dela, ahozkotasanaren harian, tokian tokiko euskalkirantz jo beharko litzateke ahal dela. Kardaberaz, Mogel eta abarren garaian bizkaiko kristauek gipuzkeraz nahi izaten omen zituzten sermoiak, euren euskalkikoak arbuaiatuz, baina garai haiek aspaldi iragan dira...

Ahozko literaturaren barrutia etengabe aldatuz doa. Hizkerak, denboraren joan-etorrian, zenbait arlo galdu egin ohi ditu eta

beste zenbait irabazi. Guztiz ezaguna eta ia topikoa ere bada, baserri giroko hitz eta irudi asko galdu dituela. Baina beste aldetik, oraintsu arte ahozko euskararenak ez ziren esparruetara hedatuz doala ere egia da. Dena dela, hiri-inguruneke hitz eta irudiak, onenean ere, erdarak kutsaturik iristen dira gure entzumenera. Eboluzio hau eta lehenagoko hizkeraren eta oraingoaren arteko kontrastea argi eta garbi somatzen dira adineko bertsolariak eta hogeitabost urtetik beherakoak batera kantari ari direnean. Jakina! lege zaharreko bertsolaritza hori, ia hazitako ere ez dela gelditzen eta kexu dira batzu, baina bertsolaritza gizartearen, kulturaren eta hizkuntzaren ispilu da...

Bertsolaritzan ezagunak diren joerak

Bertsolaritzan nabari diren zenbait joera aipatuko ditut hemen, onargarriak ala baztergarriak diren adierazi gabe. Hauetariko batzu ahozko hizkerari dagozkionak dira, baina gehien-gehienak errima eta neurriari dagozkienak. **Laburdurak** eta **lizentziak** ditut batez ere gogoan. Laburdurak bere-bereak ditu ahozko hizkerak. Lizentziak, ordea, hizkera poetikoaren zerbitzuan erabiltzen dira; hau da, artearen mesedetan ohizko metrika-arauak noizbait haustea zilegi dela esaten da. Laburdurak, gehienetan, neurriak eta errimak beharturik sartu ohi dira. Hauetariko batzu Euskal Herri osoan egiten direnak dira, beste batzu Euskal Herriko zati handi samarrean eta azkenez beste batzu txokoren batetan soilik erabiltzen direnak, hots, lokalismoak. Bat-bateko bertsoetan, lizentziak eta laburdurak, kasu batzutan, bat ote datozen susmoa dut. Lizentziak, berez eta definizioz, zilegi dira. Laburdurak ere bai ahozko hizkeraren fenomeno orokorrak direnean edota Euskal Herriko zati handi batetan ohizko formak direnean. Lokalismoak baztergarritzat joko genituzke, ordea. Hala ere kasu zehatzak aipatzen hasiz gero, non dago laburdura onargarrien eta baztergarrien muga? Nork esan dezake zein den lokalismoa eta zein ez?

Neurria eta euskara

Dieresi eta sineresiak, ahal delarik, baztertzeraz jo behar dela uste dut: **gaur** silaba bakarrez eta ez **ga-ur**. «Joan» hitza, sineresia

eginez, silaba bakarrez ebakitzen da eskuarki. Sinalefei dagokionez, -o i-, -e i-, -a i- alde batetik eta -e u-, -a u-, -o u- silaba bakarrean ematea arautzat ez bada ere, gomendagarritzat hartu beharko litzateke; gerra aurreko olerkarien artean legea zen; Oihenart-ek ere halaxe esaten du. Hitz beraren barruan egonez gero, diptongo izango liratekeenak segidako hitzetan sinalefa dira. Gainerako bokalen kasuan, sinalefa egin edo ez egin, libre izan beharko luke, eta hala egin ohi dute bertsolariek, neurrirako lizentzia horri atekin handia ateraz.

Bertsotan hizkeraren aldetik egin ohi diren zenbait laburdura, lizentzia, «a» itsatsiaren gorabeherak, luzatzeak, esaldi traketsak, bertso eredugarrien iruzkinak eta abar aipatzen ditut *Jakin* aldizkariko idazlanean, baina hemen ez dut gehiago luzatzerik eta lana bere osotasunean jaso nahi lukeenak hara jo beharko luke.

Egungo bertsolaritzaren ezaugarriak

Egungo bertsolaritzaz ari denean, Amurizaren ondorengo bertso-mugimendua hartu du ardatz Andoni Egañak.

Ingurua zeharo aldatu da eta horrek berekin ekarri du bertsolaritzaren inguruko giroaren eraldatzea. Garai batean goitik begiratzean txapela besterik ez zela ikusten diosku Andoni Egañak. Gaur egun era askotako jendea bereganatu du bertsolaritzak: hiritarrak, gazteak, emakume bertsolariak, entzulegoa ere kolore askotakoa, komunikabideak, bertso-saioen antolakuntza ere garai batean baino serioago burutzen da...

Bertso-saioen izaerari dagokionez, azken 10-12 urteotan erregularitasunez eta esparru guztietan antolatzen diren txapelketak ditugu. Guztien artean, 4, 6 edo 8 bertsolariz egindako jaialdiak hartu dute indar aparta. Bertsolariak jaialdian zehar intentsitatea bilatuko du, denbora txikian gauza asko eta onak esateko modua, beti ere gailurraren bila. «Arrakasta duen



bertsolaria noizbehinka gailurrak joko dituen hura da eta ez batezbeste beti ongi ari dena baina hortik gora jotzeko gauza ez dena».

Jendearen aho-mihietan dabilen eta eztabaidagai den beste zer bat ere aipatzen digu Andonik: zenbait gai aldezturik ematearena. Honek bertsolarien artean aldea ekarri du. Bertsolari batzuek minutu horiei ikaragarritzko etekina ateratzen diete; beste batzuek, minutu horiei esker, saioa pixka bat hobetzen dute soilik; eta, azkenez, badira gaia

aurrez esate hori alfer-alferrik dutenak.

Bertso-afariak eta bi bertsolarien arteko libreko saioak ere asko ugartu dira. Azken hauek lehenago ere egin ohi ziren, baina gaur egun haietara itzultzea, gogoeta teoriko eta frogatutako komenientziaren ondorioz etorri da, Xabier Amuriza honen aitzindari izan delarik.

Formari dagokionez, Amurizak bultzatu zuen gramatika-kategoria desberdinetako errimaz osatutako bertsoak nagusitu dira. Horixe da, izan ere, erarik naturalena, esaldiak sail gramatikal desberdinez osatzen baitira; horrela bertso berean gauza asko esateko era izaten du bertsolariak. Uztapidek edo Lasartek lau konpletibaz edo lau aditz laguntzailez bertsoak dotore osatzen zituzten garaiak joan ziren. «Earra bertsoa» esaten

zuten garaia ere atzean gelditu da; gaur egun, beste arte mota askotan bezala, «funtzionatu», «potentea», «komunikazioa» eta antzeko kontzeptuak erabiltzen dira. Doinuak, errimak erabiltzerakoan, neurriak hautatzerakoan ere, bere helburua lortzeko, entzulegoagana hobeki iristeko baliagarri denari helduko dio bertsolariak. Neurria handia hautatzen da gehien bat, txikiaren kaltetan, esan behar dena esateko erosoagoa delako; gaur eguneko erreferentzia kulturalak bertsoz adierazteko hobeki datorrelako.

Bertsoaren egituraz ere bada lehendik hona alderik. Lehen bukaera indartsuaren bila jotzen zen batez ere. Gaur egun, bukaera indartsurik ezean, hasieratik kargatzen da, goitik behera bertsoa biribilduz eta gorputz hartuz doalarik. Andonik zihonez, azken aurreko puntuak adierazten du eskuarki bukaeraren giltza.

Gaur egun bertsolaritzan, teknika eta kontzeptu aldetik izan dituen aurrerapenei esker, edozein egiteko edo ofiziotan aritzeko ez du eragozpenik; alabaina zenbait lanetan txukun aritzeko, hizkuntzaren mugen aurrez aurre ikusten du bertsolariak bere burua. Gizarteko zenbait talderen hizkuntzaTMerregistroak euskaraz erabili gabeak dira eta bertsolariak bi aukera besterik ez ditu: bata erdarazko esmoldeetara jo edo eta sail horretako hizketa-moldea eginez eginez joan.

Estereotipoen zera ere ukitu zuen Andoni Egañak. Gaur egun jendeak bertsolari batzuen estereotipoa egin du. Nondik edo nola sortzen den hori? Bertsolariak bere buruaz agertzen duen irudia dago alde batetik, komunikabideek eta publikoak hartaz zabaltzen nahiz jasotzen duten karikatura antzekoa bestetik. Azken batez hiru mutur horiek nolabait bat egitean estereotipoa gauzatzen da. Arazoa hau da: estereotipodun bertsolariak baino bertsolari onak gehiago direla. Baina entzulegoak estereotipoak identifikatzen ditu eta ez hainbeste bertsolari eta bertso onak. Bertsozale adituak, edonorengandik

datorrela ere, bertso ona zein den antzeman beharko luke eta ez ontzat eman urliak edo sandiak kantatu duelako besterik gabe...

Lehendik honako beste aldakuntza bat hitz egiteko eran ere bada: lehenago zurikeria gehiago erabili ohi zen. Gaur egun gaizki esanez, publikoa zirikatuz, egiak esanez ere lortzen du bertsolariak bere helburua.

Umorea ere asko aldatu da lehendik hona: lehen ditxolarien antzera gardenkiago jokatzekoa zen horretan; gaur egun, zinemari esker edo, ingelesez umorearen arrastoa nabari da gure artean ere.

Gaiari lotu-lotu eginik kantatzeko joera zen nagusi lehen; orain, ordea, distantziatik, ironiaz jokatzekoa da sarri.

Azkenez, bertsolaria berezkoa ala ikasia ote den auzia honek ere ukitzen du, auzi hori gaingitu izanak ekarri duen mesedea azpimarratuz. Horretaz pasadizu polit bat kontatuz bukatzen du.

Hemen duzu, irakurle, **«Bertsolamintza»** izeneko ikerlanetatik jaso ahal izan dudana laburpena neure erara jarririk. Hasierako harira itzuliz, unibertsitateak egin beharko zuela, Euskaltzaindiak edo Eusko Ikaskuntzak egin beharko zuela..., baina jardunaldi hauetako bi bertsolariei entzun eta *Jakin* aldizkaria irakurri ondoren, teoria mailan ere eurak ez ote diren onenak pentsatu nuen neure baitan. Bejon deioela!

Luis Baraiazarra Txertudi